

NAZIO-ARTEKO UNEA

KENNEDY-REN PENTSAMENTURAEN ERIoTZA

Pentsatua neukan beñ baiñan gelagotan, eziñ nintzan atrebi ordea ortaz mintzatzea. Begiratu bat eman mundu guztiari ta dānak kennedyzaleak bezela ikusten dira, ez da inor ateratzen bere esanen kontra. Baiñan ara, lengo egun batean Maurice Duvergere'-en artikululu bat irakurri det gai orretaz eta oraiñ ez det bildurrik.

Ikasten ari geraldako, ikasi bearren artean politika eskubidea ikasi bear degunoi etzaigu batere arrotz egiten Duverger jaunaren izena. Oraiñ esaten dan bezela au Frantzia'ko "Politikologorik" onea, au da, politika jakintzan jakitunenetakoa.

Jaun onek dionez prolema aundi bat arkitzen da gaurko latinoamerikan: ea ango prolemak konpondu ditezkien erreboluziorik gabe reformen bidez, reformismoaren bidez. Kennedy k reformismo oni laguntzeko erabakia artu zuan. Baiñan erabaki ori nola alabait Ipar-ameriketa'ko izaeraren kontra zihoan ordea. Reforma oiek nai ta nai ez sozialismoaren antzeko zerbaitekin egin bear eta Ipar-ameriketa'ko jendei itz orrek izugarrisko bildurra ematen dio nunbait. Orregatik bazirudin eziñezko jokabidea zala Kennedy k artutakoa. Ala ere politika orrek bakarrik ekarri zezakean prolemak askatzeko hibe bakarra.

Ez du orrela pentsatzen oraingo Jhonson ledakariak. Onentzatz, eta bere laguntzallehentzat latinoameriketan lenen lenen goa da ipar-ameriketarren interesak defenditzea ta gero komunismoari kontra egitea baiñan nolanai, batere begiratu gabe nortsuek agintzen duten, demokraziaren bitartez egiten duten edo ez begiratu gabe. Benetan penagarria eta luzarora kaltegarria.

Ori bakarrik balitz baiñan, zoritxarrez, antzematen Ipar-ameriketa'ko zuzendaritzan aize berriak etorriak dirala, zerbait falta dala. Eta alperrik esatea izango da, baiñan nik naigo nituan lengo aizeak orainokoak baiño, gaztegoak eta egi-zalegoak ziralako.

Eta arrabi aundiena ematen ditena auxa da, alegia, Kennedy ill zunak pozez txoratzen egongo dala pentsatzeak. Kennedy iltzerakoan zeuzkan asmo guztiak beteta ikusiko ditualako. Ez dute arrapatu, bere ordeaz beste batzuek izango dira illak. Gaiñera Ipar-ameriketa'ko aizeak aldatzea nai baldin bazuan, bere naiā oso osoan bete da. Zer geiago nai lezake?

Arregi'tar Rikardo'k